




GIDA
PEDAGOGIKOA
LAMAQUINÉk egin



IZENBURUA: AKROBATA ETA ARLEKINA

Picassoren zirkua eta musika y la música

KONPOSITOREAK: Erik Satie eta Francis Poulenc

GENEROA: Diziplina anitzeko ikuskizuna, zuzeneko pianoaz eta kantu lirikoaz. Aktore, formatu handiko txotxongilo, itzal eta bideo-proiektzioen bidez antzeztua.

FORMATUA: Gormatu handia.

PUBLIKO ERREFERENTEA: 4 urtetik gorakoak.

IRAUPENA: 50 min.

EKOIZPENA: La Maquiné eta Kultur Erakundeen Andaluziako Agentzia, Andaluziako Junta.

LAGUNTZAILEAK:

Bartzelonako Gran Teatre del Liceu
Gijóngo Laboral Ciudad de la Cultura

Honekin batera ekoitzia:



JUNTA DE ANDALUCÍA

Agencia Andaluza de Instituciones Culturales

CONSEJERÍA DE CULTURA

Laguntzaileak:



Gran Teatre del Liceu

laboral
ciudad de la cultura

SARRERA

GIDA PEDAGOGIKOA

“Laranja bat inoiz ikusi ez duenak ez du laranja eskatuko. Gure eginkizuna da laranja ezagutzera ematea eta desira piztea”.

*Andrei Sajao.
Fisikari nuklearra eta Bakearen Nobel Saria.*

Gida didaktiko honen xedea da ikasleak ikuskizunerako prestatzen laguntzea irakasleari, haien adinaren arabera. Gazteek agertokian ikustea espero duten horretarako sarrera edo prestaketa izan nahi du, AKROBATA ETA ARLEKINA ikuskizunaz gozatu eta uler dezaten. Hortaz, helburu du lagungarria izatea hala ikuskizuna ikusi aurreko nola osteko lanerako. Ikasle bakoitzak bere behar zehatzen arabera hautatu eta egokitu ahal izango ditu gidako edukiak.

Lau ataletan egituratuta dago: ikuskizunari, konpositoreari eta aktoreei buruzko informazio-sarrera; hezkuntza-helburuak; ikasleentzako jarduerak (irakasleak koordinatuta); eta material osagarria.

INTERES PEDAGOGIKOA


AKROBATA ETA ARLEKINA proiektuaren bidez, opera lehenengo entzuleei eta publiko berriei eraman nahi diegu, operatzen musika instrumentala eta ahotsa jota. Horretarako, agertokia funtsezko bi gauza da guretzat: gozamina eta zirrara. Urrats txikiak eginez, modu natural, egia eta zintzoan, inolako eskarmenturik gabeko entzulearengana heldu etorkizunean musika-lan konplezuagoez goza dezan presta daiteke.

Obra hau hitz errazez osatua dago, eta, batez ere, gelditu eta unerik zirrargarrienak entzun eta musikari nahiz agertokiari jarraitzeko aukera eskaintzen du. Hori dela eta, proiektu hau lehenengo urratsa da, ahotsaz eta pianoaz zuzenean antzeztua, formatu txikiagoan eta egingarriagoan.

Umeentzat, musika-edukia bezain garrantzitsua harekin batera dagoen ilustrazioa da. Hala, haurrak bestiario batek eta pertsonaia bitxiak liluratuko dituzte. Kontzertu antzeztu honek haien jakin-mina eragingo du, zirkuaren munduak dakartzan dibertsioaren eta ilusioaren bitartez. Proposamenak Picassoren garai urdin eta arrosa ezagunetako pertsonaia adierazgarriak dakartza gogora, eta XX. mendearen hasierako Parisen margolariaren inguruan zebiltzan konpositoreen —Erik Satie eta Francis Poulenc, besteak beste— zirkuluko musika-pieza garaikideen espirtua islatzen saiatzen da.

Honelako musika-errepertorio aberats baino aberatsagoak, hainbat konpositoreen bidez, interpretazio-gako berriak eskaintzen dizkie belarri gazteei. Eskarmentu urriko belarrietarako musika, eszenaratzearen esparruan esanguraz eta adierazkortasunez betea hautematen dena. Emaiza, errepertorio honekin sortzen den lotura sendoa, eta musika-balio handiko musika hauek eta beste batzuk ulertzeko pertzepzioaren sorrera.

Eszenaratzeak antzerki-alderdi eta alderdi bisualean eskaintzen duen emozio-testuinguruak muika hau sendotu eta esanahi berrieke biltzen du. Horrez gain, musika honetaz gozatu eta ulertu ahal izateko kultur erreferenteak izatea XX. mendeko erreperorioaren giltza edukitzea da, tresna bikainak izatea belarria hainbat aurreiritzitatik askatzeko, ezinbesteko urratsa egungo musikaren oihanean sartzeko.



Picasso, Le Clown (1958)



PROIEKTUAREN HASTAPENAK

Akrobata eta Arlekin eszena-musika proiektua Pablo Picassoren irudizko zirkuaren unibertsoan eta, Erik Satie eta Francis Poulenc konpositoreen bidez, aurreneko abangoardietako musikan oinarrituta dago. Ikuskizuna ahotsaz eta pianoaz abestuko da, eta aktore, txotxongilo, itzal, objektu eta proiektzioz osaturiko abtzerkiz antzeztuko. Horrez gain, aktore narratzaile batek agertokian gertatzen dena bideratuko du, 4 urtetik gorako publikoak obra uler dezan.

Proiektu hau sortu zen La Maquinék operaren, musikaren eta antzerkiaren inguruko estereotipoak desagiten saiatzeko eginiko ikerketaren ondorioz. Asmoa da txikiengana musikazaletasuna eragitea eta lirikaren mundurazko bideari ezohiko ikuspegitik batetik ekitea.

Plastika, musika, hainbat eskalatan eraturiko txotxongiloen antzerkia, haiek maneiatzeko askotariko teknikekin koreografiatuta, eszenografia eta argiztapen zainduak, ikus-entzunezko proiektzioak... baliabide estetiko horietaz baliatuko gara gure helburuak etetzeko. Gure nahia da hainbat lengoaiaren aberastasuna eta pluraltasuna deskribatzea, eta emaitza obra laño eta iradokitzailea izatea.

Musika Erik Satieren eta Francis Poulencen zenbait obraren bitartez dago egituratuta; lan horiek kontu handiz hautatu dira, eta pianoaz jo eta kantu lirikoaz abestuko dira.

1. INTERES ARTISTIKOA: Proiektuak XX. mendeko hainbat pertsonaia aparta biltzen ditu, Picasso, Satie eta Poulenc, hain zuzen, zirkuaren eta *Arteare Komediaren* moduko herri-artearen formen aldeko espiritu eta haiekiko zaletasun berak motibatuak eurak. Hala, ikuskizun honek XX. mendeko musika bikaina ezagutzeko aukera pribilegiatua eskaintzen du, Picasso izanik ardatza, arrazoia eta muga.

Proiektuari erantsitako balioa erreptorio lirikoko obra-hautaketa da, asmoa izanik proiektua ekimen ezin hobea bihurtzea entzulerik txikiak opzaren mundura gerturatzeko.

Ekoizpena LA MAQUINÉk egin du, Joaquín Casanovaren eta Elisa Ramosen zuzendaritzapean; bata eta besteak ibilbide zabala egin dute gazteentzako obren produkzioan, eta nabarmendu beharra dago hainbat sari entzutetsu irabazi dituztela, arte eszenikoetako MAX saria, esaterako. Partitura egokitzeko, José López-Montes konpositore eta pianista granadarraren laguntza izango dute.

2. INTERES TEMATIKOA: Zirkua publiko guztiek eta bereziki haurrek ezagun duten genero gisa, eduki narratiboa eta balio unibertsalak biltzen dituen istorio baten bidez kontatua. Zirkuaren mundua, Pablo Picasso margolariaren ikuspegitik ikusia, istorio lañoa garatzeko inspirazio-bitartekoa izango da. Guztia zirku-emanaldiek, arlekinek, amazonen eta zirkuko pertsonaia andanak sorturiko giro liluragarriak bilduta, 4 urtetik gorako publikoaren gozamenerako.

Zirkuaren gaia oso erakargarria da edozein publikorentzat, eta adituenentzat, berriz, Picassori eginiko keinua balio erantsia da, ikusleen kultur maila edozein izanda ere denak berdin gozaraziko dituen.

Aipatu guztiaren bitartez, proiektuaren xedea da neska-mutikoei beren kultur prestakuntzarako beharrezko musika- eta arte-ezagutzak transmititzea, hizkuntza iradokitzailea darabilen ikuskizun baten bidez, publikoak obran inplizituak dauden balioak barnera, azter eta ikas ditzan.





PROIEKTUAREN GARAPENA

XX. mendeko artisten artean, erabateko sormenerako espiritu berria sortu zen, diziplinek bat egin eta dantza, musika nahiz pintura uztartzearen ondorioz. Horren adibide argia da artistek Sergei Diaghileven konpainiarako jaso zituzten mandatuak. Picassok harremana izan zuen bere garaiko musikariekin, haien eragina onartu eta berak ere askorengan eragin zuen, Parisko konpositore nagusiekin elkarlanean arituz: Igor Stravinsky, Erik Satie eta Manuel de Falla, besteak beste. Zalantzarik gabe, bere parte-hartzea izan zuten balletei egindako ekarpena erabakigarria izan zen bere lengoaia plastikoaren bilakaerarako ez ezik, musikaren eta antzerki-ikuskizunen modernizaziorako ere.

PICASSO: ZIRKUZALE PORROKATUA

"1887an hasi zen dena, Picasso, nerabea oraindik, Bartzelonako Tívoli Zirkuko amazona Rosita Del Oroken xarmak erabat liluratu zuenean. Hark ireki zizkion zirkuaren mundu magikorako ateak, hari esker ezagutu zituen hala ikuskizuna nola horren atzean dagoen guztia, pailazo eta saltinbankien eguneroko bizimodua, haien etrenamendu etengabeak, haien zailtasunak eta pozak".

Zirkua ikuskizun okularra da, alegia, bisuala, eta besteren artean ezaugarri garrantzitsu horregatik erabaki zuen La Maquiné proposamen honi heltzea. Zirkuak berdin liluratzen du publiko txikia eta heldua, emanaldiaren magia protagonisten espiritu abenturazalearekin berarekin uztartzen duelako. Karpen ezarpena, animaliak... dena batzen da giro konparaezina sortzeko, sinbolo magikoz josia. Zirkuko betiko pista zirkular amaigabeak goxotasunez besarkatzen gaitu beti, abentura eta amets imajinaezinetan murgil gaitezen.

Zirkua Picassoren pasio handietako bat zen, eta arlekinaren pertsonaia *alter ego* izan zuen bere ibilbide artistikoa osan. Picasso XIX. mendearen amaieran Bartzelonatik igarotzen ziren zirkuak ikusi zituenean erakarri zuen zirkuak lehen aldiz, oraindik nerabea zela. Garai hartan, Tívoliko zaldi-zirkuak liluratu zuen bereziki, non Rosita del Oro amazona gazteak lan egiten zuen. Harrezkero, margolariaren obran etengabe agertuko dira bufoiak, akrobatak, amazonak, arlekinak eta *Pierrot*-ak.



1904an, Parisera joan zen bizitzera, eta bertan Medrano zirkua ezagutu zuen, bolada hartako obretarako inspirazio-iturri bihurtu zuena. Ikuskizunetara joaten zen eta, sarri, emanaldien arteko atsedendaldietan artista-taldearekin aritzen zen solasean.

El artista crea un escenario ficticio en el que acróbatas y equilibristas aparecen aparejados a lo largo de la tradición literaria y pictórica del romanticismo. Garai urdineko eta garai arrosako ebokazio tematiko, ikonografiko, estilistiko eta kromatikoak benetako abangoardiako artearen aldeko lanaren gaineko hausnarketa islatzen du. Artistak sorturiko fikziozko agertokian, akrobatak eta ekilibristak erromantizismoko literatura- eta margolaritza-tradizioan irudikatzen ditu. Picassoren zirku-pertsonaiak, artearen komediakoekin nahasten direnak, ez dira haien talentua askatzen duten uneetan erretrataturiko irudiak, XIX. mendearen amaierako margolanetakoak bezala, baizik eta beren entseguetan, atsedendaldietan, kale erdian edo eguneroko bizimoduko eginbeharretan.

Artistak aldizka heltzen zion zirkuaren gaiari, bere bizitzako gertakariekin lotuta, gaztetatik hil aurreko unera arte. Lehenengo aktore, gero ikusle eta, azkenik, zirku-ameslari, Picassok sekula ez zion utzi mundu hori maitatzeari, gurearen hain desberdina den eta, aldi berean, hainbesteko ametsak eta inbidia eragiten dituen hori. Mundu bat non maitasuna eta gorputzak askeak diren; kondaira eta mitoz, fantasiaz eta dramaz beteriko mundu bat, non heroiak, artistak bezala, betiereko egien jabe diren pailazoak diren, eta haien emakume heroinak amazona-zentauroak; mundu bat non animaliek belarriak irekitzen dakienarentzat hitz egiten duten. Mundu bat non dena den posible.

BIOGRAFIAK


PABLO PICASSO

Pablo Ruiz Picasso (Málaga, 1881eko urriak 25-Mougins, 1973ko apirilak 8) margolari eta eskultore espainiarra izan zen;

Georges Braquerekin batera, kubismoaren sortzailea.


XX. mendearen hasieratik, munduan zehar hedatu ziren eta garaiko beste paregabeko artista batzuegan eragin zuten arte-mugimendu ugartan parte hartu zuten margolarien arteko apartekoenetzat joa da. Bere margolanak Europa eta mundu osoko museo eta bildumetan daude.

Gainera, beste genero batzuk ere jorratu zituen: marrazkia, grabatua, liburu-ilustrazioa, eskultura, keramika eta antzezlanetarako eszenografiaren eta jantzien diseinua. Horrez gain, literatur obra txikia ere badu.



ERIK SATIE

Erik Satie (1866-1925) XX. mendeko arte-bilakaeraren konpositore adierazgarrienetakoa izan zen. *Gymnopédies* eta *Trois morceaux en forme de poire*, *Socrate* edo *Musique d'ameublement* eta *Relâche* (1924) obren egile txalotua da. Egile bitxia ere izan zen, mugarik gabeko fantasia ironiarik zolienarekin bat egiten jakin baitzuen, *Cuadernos de un mamífero* lanean erakutsi zuen bezala, bai eta *Además de Pièces froides* (1907) eta *En habit de cheval*



(1911) obretan ere. Lañoak, pianorako konposizio hauek lirismo zorrotza erakusten dute, zalantzarik gabeko eragina izan zuena; *Parade* (1917) balletak bezalaxe, konpositoreak eszenarako sorturiko konposizioen arteko garrantzitsuena, ziurrenik.

Aurreneko partituretan jada, Satiek berritzaile garrantzitsua zela erakutsi zuen; izan ere, erromantizismo osteko kromatizmotik ihes egin, eta ezaugarri berri jakin batzuei heldu baitzien, zeinak geroago Debussyk bere egingo zituen: akorde-bloke paraleloak, hizkuntza modala, aske erabilitako bederatziko akordeak. Horietako batzuetan, gainera, uko egin zion konpas-barrari, ekintza oso ausarta garai hartan. Era berean, umore berezia erakutsi zuen.

Bere piano-piezek, nota urriko eta edertasun sakoneko prodigio harmonikoek, edertasuna eta ausardia bat egiteko zuen jeinua biltzen dute: nota gutxi, akorde «tinkoak», jostaketak, zehar-esanak, tristura. Bere orkestra-musika, aldiz, ezezagunagoa da. Alabaina, arlo horretan egin zituen lanek Stravinskyren edo Debussyren pare jartzen dute Satie; bigarren hori miresle zuen, bai eta defendatzaile sutsuenetakoa ere, *Les Six* izeneko taldeko artistekin batera. Estilo sailkaezin eta bere garaian aitzindariarekin, serialismo eta minimalismoa aurreratu, eta musika garaikidearen haustura formal eta tonala bultzatu zuen.

FRANCIS POULENC

Francis Jean Marcel Poulenc (Paris, 1899ko urtarrilak 7 - Paris, 1963ko urtarrilak 30) fue un compositor francés y miembro del grupo francés Les Six. konpositore frantziarra eta Les Six talde frantseseko kide izan zen. Musika genero handi guztietan konposatu zuen: arte-kantua, ganbera-musika, oratorioa, opera, ballet-musika eta orkestra-musika, besteak beste. Claude Rostand kritikariak, 1950eko uztailean, Paris-Press hedabideko artikuluan, "erdi heretiko, erdi monje" ("Le moine et le voyou") deskribatu zuen Poulenc, eta musikariak etiketa hori bere ibilbide osoan eramango zuen izenari lotuta. Poulencek zera esan zion: "Nire obra profanoaren alboratzea da, sakratuarekin".



IKUSKIZUNAREN SORTZAILEAK

Joaquín Casanova eta Elisa Ramos (La Maquiné)



La Maquinéren sortzaile Joaquín Casanova eta Elisa Ramos buru-belarri aritu izan dira kalitatezko ikuskizunak antolatzen, eta, egun, haur eta gazteentzako arte eszenikoen arloko konpainia nagusietakoa osatzen dute. La Maquinéren sorkuntzaren ardatza keinu- eta musika-hizkuntza da, bai eta hizkuntza plastikoa ere, eta ikuskizunek begirada garaikidea eta zigilu personal berezia eskaintzen dituzte. Artista biek ekoizpenaren alderdi guztietan lan egiten dute, konposizioari hertsiki lotuta, eta musika eszena-antzezpenaren partetzat jotzea beren lan guztien ezaugarri formala da. La Maquinéren konposizio-planteamenduak ikuskizun-kontzeptu berria Dakar, egitura dramatiko musikala duena, publiko gazteentzat. IKusstera ematen duten osagai bakoitzean darabilten muturreko zentzu estetiko plastikoak zentzu jakin bat dauka, eta agertokia behin eta berriz mihisetzat duen partitura bat oinarri egituratzen da, irudiaren dramaturgia.

LA MAQUINÉk itzal handiko entitateekin ekoitzi izan ditu ikuskizunak: Bartzelonako Gran Teatre del Liceu, Granadako Nazioarteko Musika eta Dantza Jaialdia, Alhambra Partzuergoa, Kultura Ekintzako Estatuko Elkarte (SEAC, gaztelaniazko siglak), Kultura Ministerioa, Andaluziako Junta, Cervantes Institutua eta La Caixa, besteak beste.

Konpainiaren lanak Espainia, Frantzia, Maroko, Holanda eta Irlandako jaialdi eta programazio nagusietan eskaini izan dira.

Sariak eta aipamenak:

ESPAINIAKO JABETZA PUBLIKOKO ANTZOKI ETA AUDITORIUMEN SAREAK hautatua.

AECIDen ARTE ESZENIKOEN KANPO-SUSTAPENERAKO KATALOGOrako hautatua.

CERVANTES INSTITUTUAREN KANPO-KATALOGOrako hautatua.

EUSKADIKO ANTZOKI SAREAK hautatua.

HAURRENTZAKO IKUSKIZUN ONENAREN TEATRO ANDALUZ-SGAE saria, 2013an, *Grimmen basoa* lanagatik

MUSIKA-EGOKITZAILEA

José López-Montes



José López-Montes Guadixen jaio zen (1977), eta bertan hasi zen musika ikasten, Dolores López Buenorekin. Piano-ikasketak Juan José Pérez Torrecillasekin amaitu ondoren, Granadako Musika Garaikidearen XI. Jardunaldietan debutatu zuen konpositore, *La mitad de la verdad está en los ojos* lanarekin, zeinak Musika Original Onenaren Saria eskuratu zuen, 2000. urtean, Sur Palma del Río-ko Antzerki Jaialdian.

Konposizio-titulua eskuratu ostean, Suitzako Hochschule Musik und Theater Zurich eskolara joan zen ikastera. Bere lehenengo ekoizpenak Musika Elektroakustikoaren II. SGAE Nazioarteko Saria irabazi zuen. Bere lanak Europa, Amerika eta Hego Koreako agertokietan eskaini izan dira.

2005ean, konpositore gonbidatua izan zen Daegu International New Media Art Festival jaialdian; 2009an, konpositore egoiliarra Zuricheko Arteen Unibertsitatean. Egun, inprobisazio-, harmonia- eta matematika-irakaslea da Granadako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan, eta aldizka aritzen da pianista bakarlari, talde kamelistikoetan edo orkestrarekin, errepertorio zabala joz. Era berean, estudioko inprobisatzaile, moldatzaile eta teklista lan egiten du, eta musika-jarduna UNEDeko Matematika-ikasketekin uztartze du.

2010etik, La Maquiné keinu- eta txotxingilo-antzerki konpainiaren kolaboratzailea da, konpositore, moldatzaile eta pianista. Bere azken lanak behin eta berriz programatu izan dira Madrilgo Tatro Realen eta Bartzelonako Gran Teatre del Liceun.

MUSIKA-PLANTEAMENDUA

Proiektu honek Picassoren bizitza eta obra inguratu zuten musika-lengoaiei pluraltasuna erakusten du. Margolariaren munduan, musika eta poesia inoiz ez ziren bereizi izan margolaritzatik. a través de los diferentes Ballet Russes de Sergei Diaghilev: Igor Stravinsky,

Erik Satie y Manuel de Falla proiekturako hautatu diren piezak malagarriak joan den mendearen hasierako Parisen eta Bartzelonan poeta eta musikariekin zuen harremanean oinarrituta daude. Picassok, gainera, Sergei Diaghileven hainbat Ballet Russesen bitartez, hiru konpositorerekin lan egin zuen: Igor Stravinsky, Erik Satie eta Manuel de Falla.

Musika-piezen bidez, ekintza kontzertu didaktiko antzestu eran garatzen da. Abestiak Lorca, Éluard edo Aragonen poemetan oinarritzen dira, honela ulertuta: "Picassoren munduan, musika eta poesia margolaritzaren kide bereiziezina izan ziren; margolariek inspiratzen zituzten musikak eta musikak inspiratu zituzten margolariek".

"PARADE" BALLETA: ABIAPUNTUA

Gure pieza nagusia "Parade" balletaren musika-partitura izango da, Erik Satiek 1917an konposatua. Horrela, grabaketa eta kontzertuetan gutxi erabili izan den partitura honi heldu, eta alderdi guztietan iraultzailea zergatik izan zen ulertuko dugu: musikaren zirku-erritmoa, soinu-berrikuntza, idazteko makinak, tiroak, ontzien klaxonen bitartez. «Desfile» hutsa, obra Igor Stravinskyren *La consagración de la primavera* lanaren pare jartzen duena, hala eragindako iraultza estetikoagatik nola utzitako ondarearen betikotasunagatik.



XX. mendeko lehenengo urteetan, mundu bat mugitzen eta berritu zuten. Lehen Mundu Gerrak nahasmenduz eta desorekaz josiriko garaia eragin zuen. Garai arrosako esperientzien ondoren, zirkua berriz bihurtu zen gai nagusi Picassoren obran, Erik Satierekin batera artistak nire aurreneko antzerki-abenturari ekin zionean. *Parade* balletak aldaketa haren *glissando*-a irudikatzen du, non mundu berrirantz desagertuz doan antzinako mundu bateko musika posible den. Picassok, Erik Satie konpositoreak, Jean Cocteau idazleak eta Léonide Massine koreografoa eta dantzariak sortu zuten *Parade* balleta, Sergei Diaghileven konpainiarako, eta 1917an estreinatu zen. Osorik, abangoardiako lehen obretakotzat eta aurreneko ballet modernotzat joa da.

Balleteko protagonista artista-talde ibiltari bat da, zeinaren *parade*-a «desfilea» zirkuaren benetako emanaldiarekin nahasten duen jendetzak.

Satieren inspirazioa zinema, zirkua eta *ragtime*-a izan ziren, bai eta soinu modernoak ere. Gauzak beren testuingurutik aterata, ikuspegi berriei aurkeztu zituen, margolaritzaren kubistarekin nolabaiteko paralelismoa eginda. Orkestran, "zarata" sartu zuen, beste musika-osagai baten gisara, idazteko makina bat edo loteria-ontzi bat, kasu, eta musika-instrumentu bilakatuta haien artean integrazio perfektua lortu zuen.

SATIE ETA POULENC

Musika Erik Satieren eta Francis Poulencen zenbait obraren bitartez dago egituratuta, zeinak kontu handiz hautatu diren. Horrela, kontrastez beteriko musika-unibertsoa lortuko dugu, musika bi hauengan aurkitzen ditugun kolore eta bizi-jarrera guztiek osaturiko mundu-ikuskera. Aurkakoen jolasa ikuskizuneko funtsezko baliabidea da. Satieren musika eszena-munduekin lotzen da gehiago, zirkuaren antzerki-alderdiarekin, maskara, zentzu bikoitz eta umorearekin. Poulenc, berriz, unerik liriko eta bizitasun emozional eta dramatiko handienekoetan agertzen da. Ahots-errepertorioarako ikusten dugun aukera onenetakoa da, doinuen lañotasun eta argitasunagatik, eta ondo orekatzen da Satierekin.

Satie (1866-1925) marcó el paso

Setiek (1866-1925) gidatu zuen musika erromantikotik XX. mendeko musika berrietarako jauzia. Maiz, musika "garaikidea" inauguratu edo musika berrasmatu zuten konpositoreen artean aipatzen da. Musika-ekintza ulertzeko zuen erak eta konbentzionamismo estetikoei zien muturreko mespretsuak soinuaren bidez adierazteko modua berrasmatu zuten, eta, mende bat baino gehiago igarota, egilearen planteamenduen muturreko askatasuna argi eta garbi hautematen da.

Egun, Setieren musika bere garaian bezain fresko hautematen da. Haren planteamendu harnomiko eta kontrapuntistikoei esker, atzean utzi zen erromantizismo osteko tradizioa, eta doinua, erritmoa eta harmonia baluatzeko era "primitiboagoetara" jo zen. Hala, Satierengan: *Gymnopédies* eta *Gnosiennes* iradokitzaileez harago, badugu Satie ironiko, umoristiko, minimalista, mistiko, hermetiko, modernista, dadaista, kabaretaria, etab.

Poulencek (1899-1963), aldiz, estilo ikonoklastagoa zuen abiapuntu, futurismoak, fauvismoak eta beste abangoardia batzuek eraginda, baina sekula ez zuen atzean utzi, erabat, erromantizismoa; bereziki, bere obra berantiarretan, nostalgiaz eta dotoreziaz gainezka daudenetan.

Francis Poulencen arteak hainbat fase ditu. Halere, haren gaitasun sortzailea hoberen laburbiltzen duen generoa, adibiderik garbiena, kontzertu-kantua da. Han isuri zuen bere inspirazioaren onena, eta han topatu zituen bitartekoak bere emozioen ñabardura ugariei eta bere arte-sentsibilitatearen alderdi anitzei soinua jartzeko. Bere doinuak naturaltasunez izurtzen dira, lehenengo alditik jakintzat bezala entzuten ditugu, betidanik existitu izan balira bezala, eta horrexek egiten du Poulenc abesti-konpositore aparta.

Poulenc-Satie kontrasteak, bataren eta bestearen alderdi anitzeko estiloekin, bikainki bat egiten du Picassoren obrarekin. Hiru egileek XX. mendearen hasierako Parisko irakinaldi estetikoa bizi izan zuten, non izaera erromantikoa eta modernotasun-grinak talka egin zuten; emaitza artelan liluragarriak izan ziren.

Konpositore bien ahots-musika baiatzeko moduak ezin hobeak bihurtzen ditu kantu lirikoa ezagutzen hasteko, haien lan-esparrua tradizio liriko erromantikoa eta ingerada argi, laño eta xamagarri osaturiko kantu herrikoia artean dagoelako.

MUSIKA-MOLDAKETA

Musika-moldaketa: José López-Montes

y ocasionalmente la composición de pequeños fragmentos, derivaciones, transposiciones, enlaces, etc. Helburua izango da zatien batuketa baino askoz gehiago izango den osotasuna lortzea. Aurreko antzezlan batzuetan bezala, musika-materialaren erabilera lantegiko lanaren bidez heltzen da, musikaren, keinu-ekintzaren eta bisualaren, eta hari dramatikoa bideratzeko modu onenaren bila. La Maquinéren lanaren bereizgarri den interrelazio koreografikoa lortzen da partitura une bakoitzeko keinu, iraupen, tempo eta kontraste egokienak topatzeko landuz. Erabilitako pieza bakoitzaren musika-espirtua errespetatuta, musika-moldaketaren xedea da piezen segida hutsa baino askoz gehiago izango den osotasun dramatikoa eratzea, osotasun koherente baten arabera. Hori dela eta, musika-moldaketak piezak moldatzea dakar, eta, noizbehinka, pasarte txikiak, deribazioak, transposizioak, loturak eta abarrak konposatzea, errpertorio osoa konposizio berria balitz bezala konektatzeko.



Instrumentu hutsezko musikaren eta ahots-musikaren arteko balantzearen xedea da ahotsaren esku-hartzeak bizitasun daramatiko bereziko uneekin azpimarratzea, hala kantua erakargarriagoa bihurturik genero honetara aurrenekoz hurbiltzen diren ikusleentzat. Piano hutsezko erreperitorioaren eta ahots-erreperitorioaren arteko proportzioak, berriz, neurri egokia topatu nahi du sopranoaren esku-hartzeen indar dramatiko eta poetikoa nabarmentzeko eta, horrela, une gogoangarri eta esanguratsuak bihur daitezen publikoarentzat.

INSTRUMENTAZIOA

-Pianoa.

-Baritonoa.

MUSIKA-ERREPERTORIOA

Erik Satie (Honfleur, 1866 - Paris, 1925)

- Parade (1917)
- Gnossiennes (1.a, 2.a eta 3.a) (1890)
- Les Fleurs (J. P. Contamine de Latourren testuan oinarrituriko abestia) (1896)
- Jack in the box (1899)
- Je te veux (H. Pacoryren testuan oinarrituriko abestia) (1902)
- Trois morceaux en forme de poire (1903)
- I. Lentement
- En plus
- Le Piccadilly (1904)
- Allons-y Chochotte (D. Duranteren testuan oinarrituriko abestia) (1905)
- Véritable préludes flasques (pour un chien) (1912)
- I. Sévère réprimande
- Avant-dernières pensées (1915)
- I. Idylle (à Debussy)
- I. Prelude du Rideau Rouge
- II. Prestidigitateur chinoise
- IV. Rag-Time du Paquebot



Francis Poulenc (Paris, 1899 - Paris, 1963)

- Toréador (J. Cocteauren testuan oinarrituriko abestia) (1918, berrik. 1932)
- 4 eskurekin jotzeko pianorako sonata (1918, berrik. 1939)
- I. Prelude
- II. Rustique
- III. Final
- Le bestiaire (G. Apollinairenen poemetan oinarrituriko abestiak) (1919)
- I. Le dromadaire
- II. La chèvre du Tibet
- V. L'Ecrevisse
- VI. La Carpe
- Suite française d'après Claude Gervaise (1935)
- I. Bransle de Bourgogne
- II. Pavane
- III. Petite marche militaire
- V. Bransle de Champagne
- VI. Sicilienne
- VII. Carillon
- Montparnasse (G. Apollinairenen testuan oinarrituriko abestia) (1945)



Parade balletaren oihala, Picassok 1917an margotua

DRAMATURGIA

Zirkuaren gaia, Picassoren ikuspegitik helduta, inspirazio-bidea izango da komeriante txiki bati buruzko istorio lañoa garatzeko, bere artista-trebetasuna zirku batean topatu nahi duen komeriantearen gainekoa. Guztia zirku-emanaldien, arlekinen eta pertsonaia-andanaren estetika liluragarriaren bidez.

Picassok 1917an margotutako *Parade* balletaren oihala inspirazio-iturri izango da. Eszena garai hartako Picassoren unibertsoko *tableau vivant* gisa aurkezten zaio ikusleari. Obra honen bidez, dramaturgia garatuko dugu Picassok Garai Arrosan margotu zituen pertsonaiengan, baita atmosfera eta sinbologia ere. Zirku poetikoaren nahasketa, irudi ugarikoa zeinak artistaren obraren arorik garrantzitsuenetakoa deskribatzen duen.

Oihala Picassok margotutako lanik handiena da, eta ikonografian pertsonaiak eta jada erabilitako elementuak nahasten dira, baina bestelako antolaketa eta esanahiarekin. Zaldi hegaldun bat agertzen da, ziurrenik emea; behin eta berriz agertzen den betiko tximinoarekin, orain akrobata bihurtuta dagoenarekin, jolasten ari den neska hegadun bat. Lanaren eskuinaldean, mahai baten inguruan, zirkuo eta *Commedia dell'Arte*-ko morroien eta hainbat folkloretan tipikoak diren beste batzuen biribil txiki eta nahasia ageri da. Mallorcarra ere agertzen da, eta taldearen parean txakur bat, 1905 eta 1906 artean Picassoren artean oso tipikoa, halaber.

Egitura dramatikoak pertsonaia protagonisten eta ikuskizunari erritmoa emango diote zirku-emanaldien arteko istorioak osatuko du.


Obra hobeto ulertzeko, narratzaile bat izango da, eta horrek ere istorioan parte hartuko du, zirkuo aurkezle-lanak eginez. Narrazioa eta testua labur baliatuko dira, lagungarri.

1. Arlekin txikiaren istorioa.

Istorio lineal honek Pablo izeneko pertsonaiak zirkuaren munduarekin eta, bereziki, Rosita ahuntzarekin duen harramena du hizpide.

2. Zirku-eszenak.

Ikuskizuna hainbat zirku-emanaldik osatzen dute, non pailazoak eta halako pertsonaia tipikoak eta animalien eszenak ageri diren.



SINOPSIA

Pablo eskale gaztea kalean bizi da, goseak eta hotzak jota. Halako batean, zirku bat etorriko da hirira, eta mundu xarmagarri, magiko eta zirraragarri horrek erabat liluratuko du Pablo. Hala, laguntzaile hasiko da zirkuan, bere ametsa beteko itxaropenaz: kaletik atera eta saltinbankien familiakoa bihurtzea. Alabaina, Pablok zirkuko animaliak rrespetatzen eta zaintzen ikasi beharko du.

Istorio samur honen bidez, Pablok denak, bai gizakiak bai animaliak, erabateko harmonian eta askatasunean bizi diren familiakoa izateko bizi izango dituen gorabeherak ezagutuko ditugu. Mutikoak bizikidetza eta animaliekiko errespetuaren, zintzotasunaren eta elkartasunaren gaineko ikasgai baliotsuak ezagutuko ditu, elkarrekin bizitzeko funtsezko arau horiek, hain zuzen.



PERTSONAIA NAGUSIA

PABLO ARLEKINA

Ikuskizuneko pertsonaia nagusia Pablo izango da, bere trebetasuna zirkuan topatu nahi duen umea. Pertsonaiak Pablo Picasso du oinarri, margolariak bere artista-ibilbidea 1900eko Parisen hasi zuenean.

Pertsonaia samur eta jatorra da, zertxobait isolatu eta marjinala, poetikaz bildua. Bere nahirik handiena da zirku ibiltariko akrobaten familiakoa izan ahal izateko trebetasuna topatzea bere baitan.

Erdi Arotik, baina batez ere XVI. mendetik aurrera, Arlekin Artearen Komediako pertsonaiarik ezagunenetakoa bihurtu zen. Pertsonaia guztien artean, Picassok interes berezia eskaini zion arlekinari: artistak bere 'alter ego' izateko hautatu zuen arketipoa, eta, 1905 eta 1907 artean, margolariaren aldi arrosako benetako heroia izan zen; gainera, gerora ere bere obran jaso zuen tarteka. Bufoiek, arlekinek, saltinbankiek, akrobatek, denal barrea eragiten duten pailazoak, finean, publikoa entretenitzen dute, denak esangura-puzzle beraren osagaiak, kontuan hartuta garai hartako Parisko zirkuak, gure artista hainbeste inspiratu zutenak, gaur egungo testuinguruan kokatu direla.







La famille de saltimbanquis (Pablo Picasso, garai urdin/arrosa, 1905)

TXOTXONGILOAK ETA OBJEKTUAK

Proiektuaren balioetako bat hizkuntzen pluraltasuna da: hainbat eskala eta teknika darabiltzaten txotxongiloek, objektu eta maskarek, teknika-multzo eta txotxongilo-estilo oso aberats eta askotarikoa osatuko dute.

Txotxingiloak zirkuaren munduko pertsonaietako batzuk izango dira. Haien bidez, aktoreekin ezinezkoak diren eszenak egingo ditugu. Pertsonaia dibertigarriak, txakurtxoaren dantza edo zirkuko tximinoa, kasu.

Gainera, txotxongiloa, errealitatearen eta fantastikoaren arteko bitartekaria, publikoarekin lotura ezartzeko modu bat da, zuzenean eta zeharka bere unibertsoa erakartzen baititu ikusleak.

Txotxongilo eta gauzetan, lañotasuna, adierazkortasuna eta sintesia bilatzen dira, arte primitiboko estetikatik hurbil, Picasso inspiratu zuten maskara afrikarren bidez, baita abstrakzio geometriko eta surrealismoaren bidez ere. Txotxngiloaren, automataren eta etxeko edo inprobisaturiko jostailuaren arteko erdibideko diseinua. Pertsonaiak modu barregarri eta karikatureskoan karakterizatuko dira.

Pertsonaiak eraikitzeke inspirazio-iturri izango dira, halaber, Picassoren obra alde batera utzita, abangoardiako beste artista batzuk, beren lanean txotxingiloa erabili izan dutenak: batetik, Paul Klee, hurrei arte modernoaren formak hurbiltzen dizkiena; bestetik, Alexander Calder, zeina zirkuaren unibertsoan inspiratu zen bere sorkuntzetarako. Biek erakutsi dute material-sorta batekin, izan berriak edo birziklatuak, estetika originala lor daitekeela.

TXOTXINGILOEN MANEIUA

Eszena-adierazpenerako, hainbat aktorek mugiarazitako txotxongiloen antzerkiak arte plastikoak, musika, literatura, eszenografia, mugimendu koreografikoa eta dramaturgia konbinatzeko aukera ematen digu. Txotxongiloak, agertokian, hezur-haragizko aktore edo dantzari batek egin ezin litzakeen ekintza zehatzak egitea ahalbidetzen du, adibidez: airean hegan egin, biderkatu edo zatitu, gorputz-adarrak nahi beste luzatu edo bihurritu... Hain zuzen, paradoxikoki, zirkuko edo dantzako artistek beren trebetasun akrobatikoetan bilatzen dituzten ezaugarriak.

La Maquinék aktore txotxongilo-maneiatzaile profesionalen taldea du, zeinak txotxongilo eta objektuei itxurazko bizitza eta forma ematea lortzen duen, hegan egin dezaten, eralda daitezen, bilakatu eta meramorfoseatu, eta, horrela, egoera magiko eta ezinezkoak sortzeko, mugimendua naturala, askea, bat-batekoa eta organikoa izanik.


Aktore-maneiatzaileak ariketa koreografiko bat egingo du, bere gorputzarekin eta objektuarekin (txotxongiloa) agertokian marrazkiak eginez, "ekintza-partitura" baten bidez.

Las técnicas o modalidades de títeres serán de creación mixta; el títere parte de lo clásico y en otros casos rompen con un estilo de manipulación más contemporánea. Al igual que en nuestros anteriores espectáculos se utilizarán dos técnicas de manipulación:

Txotxongiloen teknikak edo modalitateak soekuntza mistokoak izango dira: txotxongiloak era klasikoan maneiaturiko dira, baina kasu batzuetan maneiu-estilo garaikideagoaz mugiaraziko dira. Gure aurreko ikuskizunetan bezala, bi maneiu-teknikaz baliatuko gara:

1. Aktorea ikusgai dagoela, pertsonaiekin parte hartuko du; zenbait kasutan, aktoreak fisikoki bere gorputzarekin objektuaren mugimendua irudikatzen du.
2. Aktorea ezkutaturik, txotxongiloa irudi plastikoa da, bere kabuz antzezteko gai.

Nagusiki, txotxongiloen animaziorako teknika bi erabiliko dira: Bunrakuren teknika eta teknika mistoak.




JOKAESPAZIOA

El objetivo principal será que toda la logística sea compatible con la ópera programada durante la misma fecha, a través de un montaje funcional para cumplir con este propósito.

Jokaespazioa Bartzelonako Gran Teatre del Liceu eta Madrilgo Teatro Real antzokien moduko antzokietako areto nagusirako diseinatura egongo da. Diseinua orekatua da, maila artistiko handia eta muntaketa teknikoaren moldakortasuna bermatuko dituen eszenografiaren bidez. Helburu nagusia izango da logistika guztia data berean programatutako operarekin bateragarria izatea, xede hau betetzeko muntaketa funtzionalaren bitartez.

Muntatze-lanaren gutxi gorabeherako irauena: 8 ordu.

Ekintza XX. mendearen hasierako zirku baten karpako sarreran gertatzen da, nagusiki.




se plantea un set minimalista, dominado por una grada. Eszenografiaren diseinurako, set minimalista bat planteatzen da, harmaila handi batekin. Zirkulua, triangelua eta izarrak elementu ikonografiko gisa.

Funtsezko kontzeptu eta elementuen diseinu zaindua lortu nahi da, zirkuren unibertsoan inspiratutako formen alderdi geometrikoa oinarri, eszenografia laño eta iradokitzailearen bidez. Diseinua zirkulu edo itxituraren kontzeptuan oinarrituta dago. Eszenografiak zirkuko karpas daraman sarreran kokatzen gaitu. Hortxe egiten dute artistek beren eguneroko bizimodua, eta bertan gonbidatzen dute publikoa karpas barruan sartzera. Picassok *Parade* balleteko dekoratuetarako margotu zuen itxituraren berdina da, eta ikusleak zirkuko sarrerako atean jartzen ditu.

Agertokia bi eremu zehatzetan banatuko da:

1. Benetako eremua, non oholtza mugikorak egongo diren eta aktore zein musikariek jardungo duten.
2. Bideo-proiekzioa.



1-2-3 OHOLTZA-EREMUA

Funtio anitzeko modulua

Oholtzak dira ikuskizunaren elementu nagusia, bertan aritzen dira elkarreraginean txotxongiloak eta aktoreak. Atzealdean lan egiten duten aktoreak ezkututzen dituzte, publikoak ez ditzan ikusi, eta horrela ematen du txotxongiloak beren kabuz mugitzen direla. Oholtzetan badago ibiltzea, eta, gainera, aktoreek lurraren mailatik gora lan egin dezakete, hainbat ikuspuntu sortuta.

Eraikuntza teknikoak: Elementu geografikoz osaturiko oholtza bat eraikiko da, elementuok agertokiarekiko paraleloa izango den lerro zuzenean ordenatuta.

- **1. oholtza-multzoa.** Zona principal. Este elemento hace la función de paraban para esconder escenografía y atrezzo. Gune nagusia. Multzo honek, behin tolestuta, gutxi gorabehera 10 metroko ahokadura izango duen irekidura eskainiko du, eta 1,20 metroko altuera. Bionbo-funtzioa beteko du, eszenografia eta atrezzoak ezkutatzeko.

- **2. oholtza-multzoa.** Aktore maneiatzaileentzako gunea, txotxongilo eta objektuak eroso erabili ahal izateko. Publikoak ezingu du ikusi gune hau, 1. oholtzak eskutatuta egongo baita.


- **3. oholtza-multzoa.** Aktoreek maila altuagoan maneiatzeko oholtza.

PROIEKZIOEN DISEINUA

1. Ikuskizuneko proiektzioak zirku-emanaldi batzuk egiteko baliatuko ditugu, proiektuaren funtzionaltasunagatik egin ezin direnak, trapezisten emanaldia, esaterako.
2. Atmosferak sortzen dira, zirkuko karparen silueta zeru izartsua bihurtuz, edo kolorea eta testura emanez eszenari sakontasun-sentsazioa eraginez.

Irudia eretroproiektore batean proiektatuko da, atzera proiektatuko da, 10x8m-ko PVC-zko ziklorama gris batean. Une batzuetan, proiektzioa ezkutatuko da argia xurgatuko duen tulla edo gasa beltz batekin, kamera beltza lortzeko eta antzerki beltz efektua sortzeko.

Proiektzioak animazio-teknika tradizionalekin eskainiko dira, eta margolaritza nahiz marrazketatik hurbileko sentsazioa eragingo da. Zirkuko karparen maketak eskala txikian eraikiko dira, postprodukzioan filmatu eta erabiltzeko. Prozesu hau muntatzeko, irudi- eta bideo-ediziorako programarik berrienak erabiltzen dira, hala nola Premier Pro edo After Effects.



ARGIZTAPENAREN DISEINUA

Argiztapen-diseinu oso zaindua egingo dugu, antzerki beltzeko teknikak garatuz, La Maquinéren proiektu eszenikoen bereizgarri direnak, hain zuzen. Kaleko argiztapen oso zehatzean oinarrituta, erabateko argi- eta iluntasun-gortina bat sortuko dugu.

Jokaespazioa bezala, argiztapen-diseinua ere areto nagusiko ikuskizunaren programazioaren bideragarritasunaren mende egongo da.

Garatu beharreko alderdietako bat aktoreak ikusezin egotea da, objektu eta txotxongiloak beren kabuz mugitzen direlako ilusio optikoa sortzeko.

Argien diseinuaren oinarria argiztapen oso nabarmena izango da, kubismoan oinarritutako eremu geometrikoak marraztuta. Eta forma geometrikoak argiaren bidez, hala nola zirkulua, triangelua eta karratua.

KROMATISMOA

Argiztapena Picassoren garai urdinean eta garai arrosan oinarrituko da. Lehenengoan, sentimendu patetikoa da nagusi, monokromia urdinez adierazia pertsonaia-erakusketan lineen melodia nabarmentzeko. Garai arrosan, berriz, pixkanaka tonurik atseginenak konbinatzen ditu zirkuaren mundua islatzeko, bertako juglareak eta saltinbakiak barne.



FITXA ARTISTIKOA

Dramaturgia: La Maquiné
Zuzendaritza: Joaquín Casanova
Musika: Erik Satie eta Francis Poulenc
Musika-egokitzailea eta moldaketak: José López-Montes

Eszenografiaren, argiztapenaren eta proiektzioen diseinua: Joaquín Casanova
Txotxongilo, maskara eta objektuen diseinua: Elisa Ramos eta Joaquín Casanova
Jantzien diseinua eta ehunen margoketa: Elisa Ramos
Txotxongilo-koreografia: Elisa Ramos
Jantziak: Javier Fernández eta Vanessa Cañaveral
Lantegiko laguntzailea: Carlos Monzón
Hartz-maskarak: Fx Barbatos

Musikari eta aktoreak:
Musikari pianista: Daniel Tarrida / José López-Montes
Kantu lirikoa, narrazioa eta aktorea: Noé Lifona,
Diziplina anitzeko aktoreak: Alejandro Conesa, Elisa Ramos eta Natalia Calles

Ekoizpena: La Maquiné eta Kultur Erakundeen Andaluziako Agentzia.
Andaluziako Junta
Laguntzailea: Laboral Ciudad de la Cultura, Gijón

HEZKUNTZA-DOSIERRA



AKROBATA ETA ARLEKINA ikuskizuneko planteamenduak, arte-hizkuntzak eta egitura aproposak dira **4 urtetik gorako** ikusleen garapen ebolutibo, emozional, kognitibo eta sentsorialerako.

Ezinbestekoa da zenbait jarraibide zehaztea, jardueraren helburuak eta edukiak egokiro bete eta barneratuko badira. Era berean, garrantzitsua izango da protokolo zorrotz bati jarraitzea kontzertuan bertan, aurretik eta haren ebaluazioari nahiz errentagarritasunari begira ezarritako mekanismoetan.

Aurretik, gure ikasleak prestatuko ditugu kontzertuan jarrera ona izan dezaten; izan ere, funtsezkoa da kontzertu-ikuskizunaren emanaldiaz eta garapenaz jabetzea. Norberaren bizipenari gida honekin ikasi ahalko dituzten edukiak erantsiko zaizkio, bai eta irakasleek sakonago landuko duten guztia ere, haiek ezagutzen baitute ondoen beren taldeetako giza materiala.

Ordenari eta diziplinari eusteko ahalegina egin beharko dugu kontzertuan, nahitaezkoak baitira honelako ekimenak arrakastatsuak izan daitezen. Izan ere, helburua bada, halaber, ezaugarri hauek dituen arte-adierazpen batean ikasleak errespetua, entzuteko jarrera aktiboa eta jarrera egokia oinarri hezteak.

Kontzertua amaitutakoan, norberak bizi izandakoaz gogoeta egiteko tarteak egongo da, beti oso gogoan izanik jardueraren balorazioa eta zer- nolako eragina izan duen ariketak gure ikasleengan.

HELBURUAK: AKROBATA ETA ARLEKINA musika-ikuskizunaren diseinu pedagogikoaren xede nagusia da haurrentzat interes artistikoa izango duen obra bat sortzea, eduki orokor hauei jarraikiz:

1. Arte- eta musika-ezagutzak modu dinamikoan eta entretenigarrian transmititu. Halaber, Maurice Ravel musikagilearen musika ikusle gazteei helarazi, interes artistiko eta hezigarriko ikuskizun baten bitartez.

1. Ikusleei antzezteko modu berriak erakutsi, belaunaldi gazteen hizkuntzatik gertukoagoak. Orobat, literatura, arte plastikoak eta musika uztartzen dituen ikuskizuna baliatuta, ulermen eta pertzepzio artistikoa ahalbidetu.

2. Ipuin klasikoak ezagutzeko gogoia piztu, bai eta haien irakurketa sustatu ere; umeei gozatzeko aukera eman, ezagun dituzten eta garapen intelektualari begira oinarritzekoak diren gai unibertsalak abiapuntu.

IKUSKIZUN-KONTZERTUAREN HELBURU DIDAKTIKOAK

1. Debussy eta Poulenc-en musika ezagutu, errespetua garatu eta musika-ondarea balioetsi.
2. Musika eta arte eszenikoak gazteenei helarazi.
3. Musika- eta eszena-testuinguruak haurrek ikasteko eta ondo pasatzeko baliabide gisa aurkeztu.
4. Musika-jardueren eta ekintza eszenikoen alderdi ludikoa kontuan hartu.
5. Ikuskizunean, zenbait arte-adierazpen (musika, artea, antzerkia eta literatura) lotu.
6. Musika-adierazpen eta adierazpen plastiko-artistikorako tekniketarik ikasi, eta haiek balioetsi.
7. Emanaldiak ikusi bitartean arretaz entzutera eta isilik egotera ohitu.
8. Musika-jardueren eta ekintza eszenikoen gaineko interesa erakutsi.
9. Behaketa aktiboa bultzatu, eta zenbait egoera eta gertaera adierazgarriren gaineko interpretazioa eragin. Era berean, horiek guztiak ezagutzeko interesa erakutsi.
10. Ipuin herrikoien gaineko interesa piztu.
11. Musika eta kode bisualak antzeman eta irudikatu.
12. Ikuslearen garapena ahalbidetu. Helburua da pertsona sentiberak sortzea eta etorkizunerako ikusleak ziurtatzea.
13. Antzeztutako musikaren ulermena eta irakurmena garatu.
14. Sormen indibiduala nahiz taldekakoa bultzatu.

IKUSKIZUNA IKUSI AURRETIK EGITEKO JARDUERAK

Hasteko...

Ikuskizuna ikustera joan aurretik, irakasleek gida didaktiko honetan agertzen den material pedagogikoa azaltzea gomendatzen da. Horrela, ikasleak gusturago sentituko dira beren esperientziarekin, gertatzen ari dena ezagutuko dutenez gero; ondorioz, ikasteko motibazioa areagotu egingo zaie. Garrantzitsua da ulertaraztea gure ikasleei dibertitzeko eta esperientzia honi etekina ateratzeko modurik onena isiltasunaren eta kontzentrazioaren bidez dela. Hori lortu ahal izateko, arte-jarduera honek behar duen giro egoki, berezi eta desberdina sortu beharko da, eta jokabide-arau jakin batzuk bete beharko dira. Kontzertu edo ikuskizun batera joatea une magikoa dela pentsatu behar dugu. Denon artean giro egokia sortzea lortzen badugu, esperientzia berry eta bestelakoak sentituko ditugu.

1. JARDUERA: jarduera dibertigarri eta zalapartatsuen zerrenda egin, jarduera dibertigarri eta lasaietatik bereizita. Ondoren, emaitzak aztertu, azpimarratuta esperientzia bakoitza desberdina dela eta elementu desberdin eta beti garrantzitsuz osatua egon behar duela, ahalik eta gehiena gozatuko badugu.

2. JARDUERA: komeniko litzateke ikasgelan ikuskizun-kontzertu baten simulazioa egitea (proiektzio edo emanaldi bat eskainita) jokabide-arau egokiak eta beren zergatia azaltzeko.

- Aretoan lasai eta isilik sartu, hasiera-hasieratik beharrezko giro berezi eta barea egon dadin.
- Ikuskizuna ikusi bitartean, ezin da hitz egin, eta zaratarik ez egiteko ahalegina egin behar da, horrek musikariak distraitu eta, batez ere, inguruko pertsonak gogaitzen dituelako.
- Ikuskizuna amaitu arte, ezin da aretotik irten.
- Txalo ikuskizuna amaitutakoan bakarrik egin behar da.
- Kontzertuak iraun bitartean, ezin da ez jan ez edan.

Arau erraz hauek beteta, ikasleek kontzertuan jartzen dute arreta, eta ingurunearekin ere harremanetan daude.

IKASGELAN EGITEKO JARDUERA- PROPOSAMENA

SORTU ZEURE ZIRKU-IKUSKIZUNA

Ikasgelan egiteko jarduerak, gida honetako edukiak oinarri eta haien helburu orokorrak eta zehatzak betetzea xede.

Jolas gaitzen zirkura, non ahalegin, iraunkortasun eta nork bere burua hobetzeko grinaren balioa ikasten den. Norberaren zein taldearen mugak non dauden egiaztatu, eta irudimena garatu. Faktore horiek guztiak zirkuko artisten bizitzaren parte dira. Kutsatu haien magiarekin eta jolastu zirku bat egitera!

Emanaldietara joan aurretik, ikasgelan "Circus" izeneko tailerra egitea proposatzen da, haurrentzako ikuskizunaren zenbait alderdi praktikan jartzea ahalbidetuko duena. Ikasgelan, geure zirku-ikuskitza antolatuko dugu. Zirkuko karparen arkitektura iragankorraren eta hango protagonisten bidez, musikaren eta eszenografiaren munduan murgilduko gara.

1. DISEINATU ZURE ZIRKU-KARTELA:

Ikuskizuna iragarriko duen kartela diseinatu aurretik, izen egokia aurkitu behar diozue zuen zirkuari. Kartelean, emanaldia non eta noiz egingo duzuen agertu behar da. Karpa baten edo artista batzuen irudia erants diezaiokezue.

Beharrezko materiala: kartoi meheak, kolore askotako errotuladore lodiak, zinta itsaskorra eta itsasgarria.

2. DISEINATU ETA EGIN ZURE ZIRKUKO KARPARAKO OIHALA:

Artistak oihalaren atzetik agertzen dira zirkuko pistara; musikak, bitartean, emanaldien hasiera goratu eta ikusleen lilura elikatzen du.

Zer behar duzu?

- Pintzel bat
- Artaziak
- Kartoi mehe bat
- Izara zahar bat
- Margoak

3. DISEINATU ETA EGIN ZIRKUKO KARPA:

- Zure ikasgelan, karpa bat egin dezakezu, sabaiaren erdialdetik koloretako oihalak eta banderolak zintzilikatuz.
- Zirkuko pista mugatzeko, sokak, kutxak, kuxinak... erabil ditzakezu.
- Pistaren erdialdea alfonbra batekin estal daiteke.

4. SORTU ZURE PERTSONAIK TALDEAN, IKASLE BAKOITZAK IKUSKIZUNEAN BERE EMANALDIA EGITEKO:

- PISTAKO BURUA: pistako buruak emanaldiak aurkeztu behar ditu, eta publikoa irribarretsu animatu beti.
- PAILAZOA: prestatu pailazoen emanaldi bat, helburu hau gogoan: publikoari barre eragitea.
- MALABARISMO-JOLASAK: trebetasun-jolas hauek ikuskizun gisa egiten dira zirkuko pistan, ahal beste objektu gorantz eta beherantz jaurtiz, aldi berean. Gomazko hainbat pilota erabil dezakezu.
- AKROBATAK: lagun-taldea osatu eta zuen erritmoan entseatuko duzue, betiere segurtasun-neurri guztiak beteta eta, beharrezkoa bada, heldu baten laguntzarekin. Horrela, elkarrekin, zuen alderdi akrobatikoa erakutsi ahal izateko ariketak ezagutuko dituzue.
- FUNANBULISTA: soka nasaiaren gainean dantza eta ariketak egiten dituzten artistak dira.
- MAGOA: bilatu, Interneten, publikoa txunditurik uzteko magia-truko errazen bat.

5. AUKERATU IKUSKIZUNERAKO MUSIKA:

Aukeratu, taldean, zuen ikuskizunerako musika: osagai garrantzitsuenetakoa da emanaldietako giroa eta ekintza sortzeko. Grabaturiko musika erabil dezakezu, baina saia zaitez alaia hautatzen: musika tradizionala, martxak...

IKUSKIZUNA ONDO TAULARATZEKO AHOLKUAK:

- Sortu eta entseatu arretaz, betiere kontuz eta, beharrezkoa bada, heldu batek lagunduta.
- Banatu zure kideekin jantziak bilatzeko, eszenografia sortzeko, musika egokia topatzeko eta osagarriak nahiz makillajea hautatzeko lana.
- Sartu pistan modu dinamikoan, joan publikoarengana eta eman hasiera zure emanaldiari.
- Ez egin emanaldi oso luzeak; hobe da motzak eta askotarikoak izatea.
- Emanaldia amaitutakoan, joan publikoarengana eta agurtu dotoreziaz.



